

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko urriaren 6a. VIII. urtea. 2.285. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Antxon Bandres, eskualdean eta hainbat arlotan «eredugarri»

Urkizun hil zen irailaren 27an ezbeharrez; proiektu ugariaren sortzaile, pentsakera ezberdinen arteko lotura lanak egiteko irudi «garrantzitsutzat» dute ezagutu zutenek

Olentzeroren pipa erretzetik Tolosako udalean lehen legealdian zinegotzi izateraino, hainbat alorretan aritu zen; mendiarri zion, bereziki, zaletasuna eta miresmena **6-7**

Noelia Lataburu Irurako Berdintasun zinegotzia

«Gure lana jendea sentsibilizatzea izango da, barne eta kanpo lanketa bidez»

Gizon eta emakumeen berdintasunerako lehen diagnostikoa abian jarriko du udalak **4**



Eztabaida bizia, udal gobernu berriaren lehen 100 egunen inguruan

Tolosako azkeneko osoko bilkuran, alderdi bakoitzak bere hausnarketak plazaratu zituen **2**



Emakumea eta berdintasuna, argazkietan islatuta

Tolosagasaren eta Tolargiren egutegirako antolatzen duten argazki lehiaketako hainbat irudi ikusgai daude, etzi arte, Tolosako Aranburun **5**

Idatziak ahotsa hartzen duenean gertatzen dena aztergai, Mintzolan

'Ahotsa bete hots' jardunaldiak egingo dituzte Villabonako egoitzan azaroaren 2tik 4ra; gaur da izena emateko lehen eguna **3**



Gaztelumendi, Etxaburua eta Zabala, atzo, Mintzolan. A. IMAZ

ENBRTZAMAZ



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com



Gertu...

VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI M.S.U.L.A.B.E.A

24 H..

943 694 873

Udal gobernu berriak lehen 100 egunen inguruan egindako balorazioak hautsak harrotu ditu udaleko oposizioan. Herenegungo osoko bilkuran, bi orduz hizpide izan zen gaia.

Lehen 100 egunen jira-biran

Itzea Urkizu

Joan den astearteko osoko bilkuran aniztasuna izan zen nagusi; iritzi aniztasuna. Bilduk eta Aralarrek osatutako udal gobernuak, udalean igaro dituen lehen 100 egunen inguruko txostena eta herri batzarra antolatutako orain dela bi aste inguru, eta oposizioak izan zuen esatekorik honen aurrean.

Ibai Iriartek txostena publiko egitearen arrazoi nagusiak aipatu zituen, eta besteak beste «herriarren ordezkariak» direnez, eta «herriarentzat lan egiten» dutenez, informazio hori publiko egitearen beharra azpimarratu zuen.

PSE-EEK, galderak eta iritziak
Honen ondoren, PSE-EEko Jose Ignacio Asensiok hartu zuen hitza: «Ez dakit zein txosten mota den, teknikariek egin duten, edo agintariek». Udal gobernuak osatutako txostenean, 'berraztertu' esaten den bakoitzean proiektu bat geldiarazten ari direla esan zuen Asensiok; alternatiba falta egotzi zien Bildu-Aralarko udal ordezkariak.

Horrez gain, beste hainbat galdera ere egin zizkien udal gobernuordezkariak, gai zehatzen inguruan. Lehenik eta behin, San Estebango planaren zehaztasunak noiz azalduko dituzten, atez ateko zabor bilketa ezarriko ote duten edo hizkuntza politikan udaleko ordenantzak errespetatzeko asmorik duten galdetu zuen PSE-EEko zinegotziak. Era berean, Abastoseko eraikinean gazteen erabilerrako aurreikusita zegoen lokalari buruz, osasun publikoaren auziaz, Berazubiko estadioaz eta 2012ko aurrekontu orokorrak ere galderak egin zituen.

Zaborraren kasuan, «Gipuzkoan nolako eztabaida dagoen badakigu», eta Bilduk eta Aralarrek, talde bezala, iritzi garbi bat



Pasa den asteartean izan zen osoko bilkura. I. URKIZU

azaldu behar dutela nabarmendu zuen. Era berean, osasun publikoak ere bere iritzia eman nahi izan zuen: «Ni ere osasun publikoaren aldekoa naiz, baina ospitale publiko bat egitea ilusio hutsa da egoera honetan. Orain ez da posible, zuek esaten duzuen moduan, Asuncion publiko egitea, baina zerbitzuak bermatuko dituzte, eta gainera hiru zerbitzu berri eskainiko dituzte. Nik hau modu baikorrean hartzekoa dela uste dut».

EAJK, ikuspegi desberdina

EAJko udal taldeak prentsaurreko batean azaldu zuen joan den astean, Bilduk eta Aralarrek osatutako txostenaren inguruko iritzia. Osoko bilkuran, ordea, Jokin Azkue zinegotziak beste hainbat zehaztapen egin zituen.

Kazetariak Zerkausiko agerraldian azaldu bezala, «dokumentua oso itxia» dela nabarmendu zuen, eta «eztabaidarako tartetik ez» duela uzten. Udaleko kontuak

batzordeetan eztabaidatu behar direla uste du EAJK, eta horrelako kontuak gizarteratu aurretik eztabaida bat egin behar dela: «Gardentasunean eta partaidentzan ez zarete oso txukun ibili, 3.600 bozka dituen alderdia ez baituzte kontuan hartu». Bide bereetik, «berritasun bakarra abian dagoena gelditzea» dela eragotzi zieten jeltzaleek udal gobernuordekideei.

Lehen 100 egunetako balantzearen txosteneko atalrik esangaratsuenetakoa udalaren zorrarena izan zen bai Topic-eko herri batzarrena, baita ondorengo egunetan ere. Honen harira, Jokin Azkuek udalean hutsune bat badagoela onartu zuen: «Baina krisi egoera honetan ekonomia-aren egoera ona da udalean. Alarminoak zuek sortu dituzte hauteskunde kanpainatik hasita». Zorpetze maila, interes publikoaren proiektuetarako baldin bada, ona dela nabarmendu zuen zinegotzi jeltzaleak, eta adibide gisa Usabal kiroldegia erabili zuen: «Oso harro gaude, gaur egun halako kiroldegirik ez baitauegoz Euskal Herrian, ezta Espainian ere».

Azkenik, Santa Luziako eta Elosegi parkeko lur desjabetzen inguruan aritu zen Azkue. EAJK

akatsa egin zuela onartu zuen, «baina kontu hau ezker abertzalea udalean zegoen garaitik» datorrela azaldu zuen.

Emaitzak onartu beharraz

Ibai Iriarte alkateak «harrituta» azaldu zuen bere burua. Lehen 100 egunetako txostena «argazki bat» dela azaldu zuen: «Udal gobernu berriak egin du, eta maiatzaren 22ko hauteskundeek zein emaitza izan zituzten onartu behar da. Ildo desberdinak jarraituko ditugu».

Bide bereetik, Iriartek zinegotzi asko berriak direla aipatu zuen, «eta gizakiak garen aldetik, denok bezala, akatsak egingo ditugu». Hala ere, oposizioak egindako kritika guztiak «fisiko denboran, 100 egunetan, ezin direla egin» nabarmendu zuen Tolosako alkateak.

Bai PSE-EEK, eta bai EAJK, udal gobernuak proiektuak gelditu egin dituela esan zuten bilkuran. Ibai Iriartek, «gelditu den bakarra Laskoraingoako eremuko 1.200 etxebizitzena» dela azpimarratu zuen: «Hainbeste etxebizitzek ez dute zentzurik une honetan». Era berean, zera gaineratu zuen: «Proiektuak aurreikusitako bidetik ez gauzatzeak ez

du esan nahi geldirik daudenik».

Oposizioak egindako kritikak ere «zilegi» direla azaldu zuen alkateak: «Badakit diskurtso politikoa beti zilegi dela, eta normala da, hori baita politika, ideia desberdinak izan eta eztabaidatzea. Hala ere, zirko bat ez da sortu behar honekin».

Azken hilabeteotan eskualdeko hautsak harrotu dituen osasun publikoaren aferaz ere aritu zen Ibai Iriarte. PSE-EEko Jose Ignacio Asensiok egindako galderari erantzunez, «orain arte agintean udeleko udal gobernuak egin ez duen zerbaite» egiten ari direla esan zuen Iriartek. Euren eskualde osorako ospitale publiko berri bat eraikitzea nahiko luketen arren, une honetan «errealistena» Asuncion klinika publiko egitea dela uste dute eskualdeko udalek: «Lanean jarraituko dugu presioa eginaz». Modu honetara, osasun publikoaren auzian PSE-EEren jarrera salatutako Ibai Iriartek, eta EAJK PSE-EEri jarrera horretan laguntzen diola gaineratu zuen.

Azkenik, «agian ondo erakutsi ez arren», ilusioak badituztela aldarrikatu zuen Tolosako alkateak; «bestela ez geundekete hemen».

Kritika onak ere bai

Iñaki Irazabalbeitiak Aralarko kide moduan hitz egin nahi izan zuen osoko bilkuraren amaieran. «Azken bost urteotan ez da hemen horrelako eztabaidarik egin», azpimarratu nahi izan zuen. Honek estilo bat markatzea espero duela gehitu zuen, kritikak ere eskertu zituen.

Antton Izagirrek, berriz, entzuleen aulkitik, ezker abertzalearen izenean hitz egin zuen. Zorionak eman zizkien udal gobernuordekideei: «Bidea hau izan dadila eta haratago joan dadila. Gaur hemen gertatutako eztabaida sanoa eta oso ona da».

Antxon Bandres gogoan

Bere heriotzaren berria jaso eta aste betera, astearteko osoko bilkurak guztiak izan zuten Antxon Bandresi eskaintzeko hitzen bat. Jokin Azkuek Bandresen Tolosaren alde egindako lan handia azpimarratu nahi izan zuen, eta doluminak eman zizkion familari. Era berean, Olatz Peon zinegotziak, erabat hunkituta nabarmendu nahi izan zuen hilberriaren gizatasuna.

Ezker abertzaleak, EAJri doluminak eman zizkion: «Geure burua Antxon Bandresen laguntzat genuen».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nafarroa orotik, 13 beheko - TOLOSA
Abg.: 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua Tolosan. Eguzkitsua, lau gela, bi bainu-gela, komuna, egongela-jan-

gela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuek deitu 678 267 657 zenbakira.

Ahozkotasuna bizi duen ororentzat jardunaldiak antolatu ditu Mintzolak

Azaroaren 2tik 4ra 'Ahoa bete hots' jardunaldien bigarren edizioa egingo da Mintzolaaren egoitzan

Asier Imaz Amasa-Villabona

Mintzolak *Ahoa bete hots* jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 2, 3 eta 4rako. Aurtengoa bigarren edizioa izango da, eta lau elkarteren laguntzaz antolatu dira hitzaldi, saio praktikoko eta mahai inguruak. Idatziak ahotza hartzen duenean zer gertatzen den aztertzeko saiatuko dira hiru egunetan, hori baita jardunaldien izena eta gai zentrala. Aurten, beraz, ahozkoa eta idatzizkoa bereiztearen gaia jorratuko dute.

Mintzolarekin batera, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Antzerkizale Elkarteak, Ipuin Kontalariak eta Kantuzaleen Elkarteak



Gaztelumendi, Zabala eta Marin atzo, Etxeburua iritsi aurretik. A.I.

aritu dira antolatzaile lanetan. Mintzolaaren egoitzan aurkeztu zizuten jardunaldiak, bertan burutuko baitira azaroan. Besteak beste, Beñat Gaztelumendi Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak ikerketa arduraduna, Zigor Etxeburua Gipuzkoako Foru Aldundiako Euskarako zuzendaria, Josune Zabala Mintzola Fundazioaren zuzendaria eta Julia Marin Itzuli-

datz taldeko kidea elkartu ziren bertan.

Matrikula egiteko epea gaur zabalduko dute. Horretarako www.mintzola.com webgunean sartu behar da, edo 943 69 38 70 telefonora deitu. Irakasle, kazetari, aurkezle, bertsolari, ipuin kontalari, antzezle, euskara teknikari, ikerlari eta oro har, ahozkotasuna bizi duen orori zuzendua dago.

Ugarte auzoko festak bihar hasiko dira

A. Imaz Amezketan

Amezketako Ugarte auzoan hiru eguneko jaia antolatu dute bihar-tik igandera bitarte. Lehen egunean, 12:00etan meza nagusia

egingo baldin bada ere, 20:00etan botako dute suziria, kanpai jotzen laguntzarekin. Ondoren, bertso poteoa eta herri afaria egingo dituzte, trikitilarien laguntzarekin.

↓ Egitaraua

URRIAK 7, BIHAR

- **12:00etan.** Meza nagusia.
- **20:00etan.** Kanpai jotze eta suziriak.
- **20:00etan.** Unai Muñoa eta Bixente Gorostidirekin bertso poteoa.
- **21:00etan.** Herri afaria.
- **Ondoren.** Trikitixa Ostolaza eta Andonegirekin.
- **Atsedendian,** Toka lehiaketata.

URRIAK 8, ETZI

- **11:00etan.** Gaztetxoaren pilota partidak.
- **13:00etatik 19:00etara.** Puzgarriak eta ohe elastikoak.
- **Arratsaldean.** Zaldiak ibiliko dira nahi duenak Ugarten zehar ibilalditxoak egiteko.

- **18:00etan.** Txokolatea bizkotxoekin elkarte aurrean.
- **21:00etan.** Zahagi-ardoa.
- **22:30ean.** Ansozregi eta Larrañagarekin trikitixa.
- **Atsedendian,** ikuskizuna.

URRIAK 9, IGANDEA

- **11:15ean.** Meza nagusia.
- **Jarraian.** Txakolin probaketa eta pintxoak plazan.
- **Bazkal aurretik.** Laja eta Landakandaren trikiti saioa.
- **18:00etan.** Herri kirolak: Urdaix, Telleria eta Izeta. Aizkolariak: Oihan Larretxea eta Julen Cañameres.
- **Ondoren.** Ingurutxoak.
- **20:30ean.** Sagardo probak.
- **Ondoren.** Laja eta Landakandaren trikitiarekin festei amaiera emango diegu.

↓ Egitaraua

AZAROAK 2, ASTEAZKENA

- **09:15etik 10:15era,** Luis Mari Larringan eta Arantza Ozaetaren eskutik: *Ahozkoa eta idatzia, bi kultura. Zertan elkarren aberas-bide.*
- **10:20an,** Julia Marinen eskutik, *Esatearen ederra.*
- **11:25ean,** Asier Larrinagaren eskutik, *Pantaila euskarazko hitzez mintzo.*
- **12:45ean,** Saio praktikoa: *Arra. Arraroa.*
- **13:10ean,** Mahai ingurua: Luis Mari Larringan, Arantza Ozaeta, Julia Marin, Asier Larrinaga, Oier Guillan eta Iñigo Ortega. Moderatzailea, Lorea Agirre.

AZAROAK 3, OSTEGUNA

- **09:15ean,** Joxerra Garziaren eskutik, *Ahoz idatzi, eskuz hitz egin.*
- **10:20an,** Itsaso Arrietaekin, *Herri kantuen interpretazioa. Ahozko tradizioaren atzetik.*
- **11:50ean,** Saio praktikoa: *Ahozkotasuna-kantagintza: ariketa praktikoa.* Ana Elorzaren gidaritzapean.
- **12:10ean,** Saio praktikoa: *Eskuz esku bertsoan* Uxue Alberdi eta Iker Zubeldiarekin.
- **12:30ean,** Mahai ingurua: Joxerra Garzia, Itsaso Arrieta, Ana Elorza, Uxue Alberdi eta Iker Zubeldia. Moderatzailea, Mikel Ur-dangarin.

AZAROAK 4, OSTIRALA

- **09:15ean,** Leire Diaz de Gereñuren eskutik, *Ahozkoaren eta idatziaren arteko interfazeak mintza jardun jakinen eraberritzean: adibide bat.*
- **10:20an,** Itziar Elorzaren eskutik, *Ikazteko hitz egin, hitz egiten ikasi.*
- **11:50ean,** Saio praktikoa: *Ahotik fantastikara: bi adibide.* Bea Egizabal eta Joxemari Carrereren gidaritzapean.
- **12:15ean,** Mahai ingurua: Leire Diaz de Gereñu, Itziar Elorza, Bea Egizabal eta Joxemari Carrerera. Moderatzailea, Ibon Man-terola.
- **13:30ean,** Azken ondorioak.

Ezker abertzalearen batzarrak, gaur eta bihar

Ikaztegieta gaur elkartuko dira eta Amasa-Villabonan bihar; egungo egoera aztertuko dute

narketaz gain, hauteskundeetaz hitz egingo dute. Villabonan udal-letxean elkartuko dira bihar, 19:30ean, eta Ikaztegieta, Liburutegian 21:00etan, gaur.

Erredakzioa

Amasa-Villabonako Ezker abertzaleak, Ikaztegietaok bezala, batzarra egingo du. Egungo egoera politikoaren inguruko haus-

ZUZENKETA: Leaburun igan-dean ospatuko den azokako bazkaria frontoian egingo dute, ez Ostatuan, atzoko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN ZENBAKIAN agertzen zen bezala. Ostatuan sarrerak daude salgai.

◉ Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



MARIA ANTONIA ZUBELDIA TXAKON

andrea

Urriaren 4an hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Denbora, gogoa eta maltasuna eskaini diguzu beti guri, eren duzunagatik esker ona eskaintzen dizugu gaur, zuri.

Bere arimaren zuzendaria: Iñaki Zubeldia; koñata: Modesta

Luloaga (Miguel Zubeldiaren alarguna); eta ilobak.

Haren arimaren alde, otoitz bat eskatzen dizujete eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA arratsaldeko SEI ETAN. Lizartzako SANTA KATALINA parroki elizan GORPUTZA BERTAN DELA egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Lizartzan, 2011ko urriaren 6an

Helbidea: Zelain baserria.

Noelia Lataburu > Berdintasun zinegotzia

Lau urte hauetan berdintasunaren gaiari gogotsu helduko diote Irurako zinegotziek. Berdintasunerako bidean lehen pausua emateko diagnostikoa egingo dute.

«Emakumearen ikuspegiak alor guztietan lekua izan behar du»

Eneritz Maiz Irura

Berdintasun zinegotzia da Noelia Lataburu (Tolosa, 1982). Udaleria sartzera oso garbi zuten berdintasunaren gaiari gogotsu heldu nahi ziotela.

Berdintasun zinegotzia zara. Udalean alor hau jorratzea beharrezko ikusiduzue.

Udaletxera sartu, eta segituan erabaki genituen zeintzuk izango ziren gure ildoak. Ildo horien artean parte hartzea, kirola, kultura,... daude, baina oso argi ikusten genuen emakumearen ere egon behar zuela. Askotan baten edo biren borroka izaten da, eta Bilduk garbi du gai honi heldu behar zaiola. Batzordea osatu dugu, eta ni izango naiz batzorde buru. Gorka Muruak, Ainara Mujikak eta nik osatzen dugu batzordea. Gure teknikaria, berriz, gizarte zerbitzueta langilea da.

Teknikaria fattako litzazueke orduan.

Niretzat ideala teknikaria izatea izango litzateke, baina krisi garaian gaude, eta gaia hor dago ezinean. Agian, herri txikiaren elkartu eta teknikari bat elkar banatu edo aztertu egin beharko genuke. Gaur gaurkoz, gizarte zerbitzueta langilea dugu. Gaiarekin oso sentsibilizatua dago, eta lanerako erraztasunak ematen dizkigu.

Bigarren maila bateko gaia izan ohi da berdintasunarena askotan.

Berdintasunaren gaiarekin sarritan gertatzen da baietz esan, baina egunerokoa albo batera uzten dela. Kanpo lana egin behar da, baina barne lan batetik hasita. Hau da, guk kontzientziatu behar dugu lehenengo. Guk esaten dudanean, hautetsiak esan nahi dut, eta langileak. Sail bat osatu dugu, baina berdintasuna zeharkako gaia da, dena ukitzen du. Baina batzuetan berdintasuna esan, eta tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeak etortzen zaiz-

kigu burura, eta ez, berdintasun guztian eragiten du. Berdintasunaren ikuspegia udalak antolatzen dituen ekitaldi eta lan guztietan txertatzea da. Orain arte egon ez dena edo landu ez dena da. Izan ere, jendarte batean bizi gara non berdintasuna dagoela esaten da, baina errealitateak aurkakoa erakusten digu.

Tradizioak eragin handia du oraindik.

Bai, gauza pila bat daude. Pixkana-pixkana ea aldatzen dugun, eta lehenengo gauza gu gara. Talde barruan landu egin nahi dugu, eta sentsibilizatorako egon daitezkeen ikastaroak egin. Askotan

«Berdintasuna dagoela esaten da, baina errealitateak aurkakoa erakusten du»

gertuko edo inguruko jendearekin gertatzen zaigu; emakumearen gaia aipatu, eta 'orain ere kontu berarekin' esanez bukatzen dutenak izatea. Guztiok egin behar dugu lana. Niretzat oso garrantzitsua da kanpora begira lanean hasi aurretik, barruan kontzientzia hori piztea.

Udal langileek ere zer esana izango dute.

Bai, politikoekin batera udaletxeko gaiak beraiek mugitzen dituzte. Langile batzuk oso sentsibilizatuta egon daitezke, baina beste alor batzuetakoek ez dute kontuan hartzen. Transbertsalitatea ulertaraztea zaila da. Kontzientzia piztea da kontua.

Zertan, esaterako?

Udal batek datuen segregazioa egin duen edo ez oso adierazkorra da. Dena batera egiten bada, ezin dugu emakumearen egoeraren perspektibarik jaso. Adibidez, 100 lagunek eskatu dute laguntza, baina horietatik zenbat dira emakumeak? %90a emakumezkoa bada, udalarentzat datu hori adie-

razkorra da. Eta zerbaitetan erak leian atzeraka goaz. Teoria badakite, baina praktikara eramanda hori ez da betetzen. Nahigabe umeekin ere erori egiten gara, eta ezberdin tratatzen ditugu. Adibidez, jostailu bat erostera joaten gara umearentzat, eta neska ala mutila den galdetzen dizute, eta ume bat da. Banaketa oso baneratu dugu.

Herri txikia izatearekin zailtasunak ere gehiago izango dituzue ezta?

Tolosa batek izugarriko martxa du. Herri handi bat da, berdintasun saila du aspalditik eta teknikaria dauka. Gu herri txiki bat gara, eta ezaugarri ezberdinak ditugu, baina informatzen ibili gara, eta adibidez Itsasondon egin zen, eta herri txikietan ere landu izan da.

Herriko jaiak pasa berri dituzue, eta txupinazoan emakumea izan zen protagonista. Dagoeneko hasi zarete herrian gaia jorratzen?

Bai, jaietan ere gaia herritarrengana iristeko sartzen saiatu gara. Emakumeak bota zuen txupinazoa, eta danborradan puntu moreak banatu genituen. Askok zer zen galdetzen zuten. Jendeak ez dakielako iruditzen zait, 'Berdintasuna? Baina zertarako?' esaten dizute. Gure lana, barne eta kanpo lanketa bidez, jendea sentsibilizatzea izango da. Emakumeak hori egon behar du, emakumearen ikuspegia beharrezkoa da erabakiak hartzeko, gauzak antolatzeko,... guztirako. Bestela, mundu honek orain bezala jarraituko du gizonen ikuspegitik, erabakiak beraiek hartuko dituzte,...

Nola ikusten duzu gaur egungo gizartea?

Oro har eta ez Iruran bakarrik, oraindik gauza pila bat dagoela egiteko uste dut. Beldur handiago ematen du gazteengan ikusten duzunean. Aitona baten ahotik entzuten baduzu, azkenean jaso duen hezkuntza dela eta, uler dezakezu. Beste garai batzuk bizitu dituzte, baina beraiekin ere gauza pila bat landu daitezke. Berriantzat emakumea etxekoandrea zen, baina gazteetan beldurra ematen du.

Nolako etorkizuna dugu gazteei begiratuta?

Datuak ikusita, beldurgarria da. Gaur egungo gazteek eskoletan

gaia lantzen dute, baina gero kanpalean atzeraka goaz. Teoria badakite, baina praktikara eramanda hori ez da betetzen. Nahigabe umeekin ere erori egiten gara, eta ezberdin tratatzen ditugu. Adibidez, jostailu bat erostera joaten gara umearentzat, eta neska ala mutila den galdetzen dizute, eta ume bat da. Banaketa oso baneratu dugu.

Eskolako heziketa gauza bat da, baina etxean ikusitakoak zer esan handia du ezta?

Gazteek eskolan lantzen dute gaia, baina zer ikusten dute etxean? Berdintasuna 'bai bai' esan, baina bizitza errealean ez baduzu

«Oso garrantzitsua da kanpora begira lanean hasi aurretik barruan kontzientzia piztea»

jorratzen alferrik da. 30 urtera bitartekoekin lan pila bat dugu egiteko. Oso baneratu ditugu estereotipo guztiak. Eta gure adinerekin, hori da beraiek ikasi dutena, baina apurtzen duen belaunaldi bat egon behar da. Horretarako landu egin behar da.

Herri diagnostikoa egingo duzue. Zein dira lau urteetarako helburuak?

Azaroak 25 eta martxoak 8 egunetarik ateratzea nahi genuke. Horiek ondo daude baina ezin zara horretara mugatu. Urte guztira zabaldu behar dugu. Lau urte nahi gabe pasako dira, eta ezin gara helburu handiak jartzen hasi. Poliki-poliki joan behar dugu, eta oso pausu polita da diagnostikoa. Emaitza jasotzean, Iruraren beharrak zein diren ikusiko dugu. Emakumearen aldeko edozein programa martxan jartzeko lehenengo pausua da. Ondoren, jarraitu behar bideak zeintzuk diren aztertu beharko ditugu.



E. MAIZ

Herriko gizon eta emakumeen errealitatearen ezagutza sakona jasoko dute

Gizon eta emakumeen berdintasunerako lehen diagnostikoa egingo dute hurrengo sei hilabeteetan

Aurreko legealdiko udal taldeak diagnostikoa egin ahal izateko diru laguntza eskatu zuen. Oraingo taldeari ezin hobeto etorri zaio laguntza hau mahai gainean izatea. Hurrengo sei hilabeteetako lana Farapik egingo du.

Lehen fasean dokumentazioa lana egingo dute. Emakume eta gizonen arteko lana nola dagoen jorratuta aztertuko dute, esparru guztietan. Udaletxe barruan eta baita herrian ere. Kanpoko eragileak datuak ere jasoko dituzte. Kultur eta kirol elkarteak, osasun zentroa, ikastola, jubilatuek, gazteak, guraso elkarteak,... alor guztiak ukituko dituzte.

Gero herritarrekin elkarrizketak egingo dituzte. Bederatzi elkarrizketa dituzte adostuta. Horietako bat, bazterkeria jasan duena izango da. Aldi berean bi eztabaida talde sortuko dituzte: bat elkarrizketatuekin izango da, eta bestea udaletxe barruko kideekin egingo dute.

Diagnostikoaren hirugarren zatian, bildu dituzten datuak emango dituzte, eta aurkezpen publikoa ere egingo dute. Diagnostikoak Irurako egoeraren argizkia emango die.

Ondoren erabaki egin beharko dute planarekin jarraitu edo proiektu batzuk martxan jarri.

Berdintasunaren mila aurpegiak

Tolosagasaren eta Tolargiren egutegiako aurkeztu diren argazkien erakusketa etzi amaitzen da

Imanol Garcia

Tolosagasak eta Tolargik banan-banan egutegiaren argazki erakusketa azken egunetara iritsi da. Aranburu jauregian ikusi daitezke, larunbata arte eta 17:30etik 20:30era, epaimahaiak aukeratu dituen 40 argazkiak. Egutegian azaltzen diren irudiak argazki lehiaketa baten bitartez aukeratu dira, eta *Emakumea eta berdintasuna* izan da gaia.

Argazki lehiaketan 43 lagunek parte hartu dute, 24 emakumezko eta 19 gizonezko, eta guztira 342 irudi aurkeztu dituzte. Esan bezala, Aranburu horietako 40 daude, baina saritu guztiak ez dira derigor hortik atera behar. Hori bai, publikoaren saria horietako batek jasoko du.

Izan ere, erakusketara joaten direnek gustukoena dutenari bozka eman ahal diote. Gainera, bozketan parte hartzen dutenen artean argazki kamera bat zozketatuko dute. Dagoeneko bisitari ugari jaso ditu erakusketak. Tolosagasa enpresako Alberto Gonzalezek azaldu duenez, «iazko era-

kusketa 900 lagunek bisitatu zuten. Bada zer bait, bi astetan bakarrik ikusgai egoten baita».

Gaia ez dela erraza izan esan du Gonzalezek. Iaz baino argazki gutxiago aurkeztu dira lehiaketara, 502tik 342ra jaitsi da kopurua, baina pixka bat igo da argazkilarien kopurua, 41etik 43ra.

Azaroan banatuko dute

Egutegiaren zazpi mila ale banatzen dituzte. Bi ideia finko izaten dituzte egutegiaren inguruan, Gonzalezek zehaztu duenez: «Lehenengoak izatea egutegia banatzen, eta espazio zuri asko izatea orriek, jendeak agenda gisa erabil dezan». Azaroaren erdi aldera banatuko dituzte aleak, eta horretarako Zerkausian lau egunez mahai bat jarriko dute.

Guztira hamahiru sari ematen dituzte urtero: egutegiaren azalean joango dena eta hilabete bakotzaren orrian joango dena. Hauek publikoak aukeratu du, eta besteak epaimahaiaren esku geratuko dira, tartean sari nagusia.

Irabazleak gasaren eta argiaren urtebeteko faktura doan izango du. Beste hamabi sariak horrela banatuko dira: erdiak gasaren urtebeteko faktura doan izango du eta beste erdiak argiarena. Iaz, hamahiru sariak batuta, 7.300 euro banatu zituztela nabarmendu du Gonzalezek.



Aranburuko argazki erakusketa, besteak beste, zortzi argazki hauek ikusi daitezke. HITZA

Omenaldia amaren irudiari

La Enananaranja taldeak 'MA, tren taupadak' txotxongilo emanaldia egingo du etzi, 18:30ean, Topic-en

I. Garcia

Txotxongiloekin eginiko antzezlan berri bat ikusteko aukera izango da, etzi, Topic-en, 18:30ean. Oraingoan, La Enananaranja taldeak *MA, tren taupadak* obra taularatuko du. Antzezlanean «omenaldia egiten zaio amaren irudiari, bere seme-alabengatik guztia emateko eta egiteko prest dagoen ama horri», nabarmendu dute egileek. «Istorio honek, emakume langile, lankide eta oztopo guztien aurka borrokan aritzen den amaren irudia du abiapuntu».

Ikuskizunak irudi asko dauzka eta testu gutxi, txotxongiloen mu-

gimenduei soinuek zuzenean laguntzen die, eszenatokia zehar hainbat eszenografia mugituz agertzen diren bagoietan zehar bidaiatuz. Euskarazko ikuskizuna da, sei urtetik aurrerako haurrentzat zein familia osoarentzat sortua.

Antzezlanaren oinarri duen ideia Iker Garciaarena da. Obrak «hego-

aldeko jendeak bizi duen garai latza erakusten du. Oparotasunezko garai baten ondoren, gainbetera dator dena», azaldu du Garcia. «Biziraupenaren historia» dela dio, «emakume batek –ama langile batek– aurre egin nahi die sasoi latzei, bera eta ingurukoak beraien patuaren jabe izan daitezkeen».

Kontseju Tatetxea
Hirigunea, 1. 20493 Elduain

Eguneko menuak
Ospakizunak
Asteburuko menu bereziak
Plater konbinatuak

943 68 33 27 / 656 710073





XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

Zein da XIV. HITZA Argazki Lehiaketako

zortzi

argazki finalistetatik

gehien gustatzen zaizuna?



Eman zure bozka, harpidedun!

(argazkiak ikusgai webgunean)

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

Deitu 943 65 56 95

telefono zenbakira edo idatzi,

thargazkiak@hitza.info-ra

Irailaren 27an hil zen ezbeharrez Antxon Bandres Urkizun. Esparru bakarrera mugatu ez zen tolosarra erreferentziatzat dute haren gertukoek; hainbat arlotan ekimen ugariaren sortzaile eta bultzatzaile izan zen.

Nekaezinezko gidariaren lana

E. Maiz - I. Terradillos Tolosa

Ilusioa, pasioa, erreferentea, pertsona ona, inizatiba handikoa, laguna, eskuzabala, langilea,... Horrela oroitzen dute bere gertukoek Antxon Bandres.

Mendia, zientzia, medikuntza, politika, Urkizu, Inauteriak,... Alor ugari ukitu ditu bere bizitzan zehar; zail da, beraz, hitz bakarrean hura definitzea. Ezaguna izateaz gain, maitatua izan da, eta hori agerian geratu zen, esate-

rako, haren aldeko elizkizun eta agur ekitaldian.

Tolosar askorentzat erreferentia izan da. Ez dira asko izango, Antxon Bandresen adina esparru ukitu eta jorratu dituenik. Olenztzeroren paperean sartu, eta haurren ilusioa piztetik hasi, eta Tolosako Udaleko zinegotzi izateraino. 1979.ean izan zen hori, lehenengo udal hauteskundeak eta gero, hain zuzen.

Medikuntza eta Biologia ikasketak egin zituen. Medikuz bezala, Asuncion Klinikari egiten zuen

lan, eta erradiologian zuen berezitasuna. Era berean, mendia zuen zaletasun nagusi. Bera ezagutu duten guztiek bat egiten dute mendizaletasunari ekarpen handia egin diola esatean. Euskal Mendi Federazioko presidentea izan zen zortzi urtez, eta egun, lehendakariorde kargua zuen.

Elkarte ugariakoa kidea

Alor askotan ekimen ugari jarri zituen martxan. Aranzadi Zientzi Elkartearen ere bazuen bere tokia. Bertan Antropologia Fisikoa sai-

leko kidea zen, eta ez dute ahazteko bertan egindako lana.

Urkizu auzoan bizi zen. Maitea zuen Tolosako auzoa, eta maitea zuten auzotarrek Bandres. Auzotarren elkarteak jaio izanaren errudun nagusietako bat bera izan zen. Et Incarnatus orkestrak urtero jotzen duen Solstizio kontzertua antolatzeke ere bera zen beti atzean zegoena.

Andia Kultur Elkarteke kidea ere bazen, eta ekainean egindako Napoleon garaiko alardean antolatzaile lanetan aritu zen. Beste-

tik, Casino elkarteke lehendakaria zen. Alpino Uzturre Mendi Taldean ere izan zen, Aralarko Adiskideak... Eta noski, tolosarra izanik Inauteriak gustuko zituen.

Esparru eta leku askotan sentituko dute hutsunea. Bere lana ez baita nolana hikoia izan. Pasio handiz bizi eta maitatu du berak ukitu duen ekimen oro. Honen guztiaren pisuaz ohartu eta haren irudia gogora ekartzeko, ekimenak ikusiko ditugu laster ziu- renenik. Ez dadila bizitzeko pasio hori ahanzturan geratu.

↓ Lagunek berari buruz egindako gogoetak

«Bera ez egonda ere bere presentzia nonahi nabaritzen zen»

Josu Iztueta

Bidaia

«13-14 urte nituen nik Antxon ezagutu nuenean. Alpino-Uzturre elkartearen hasi berritan ginen. 23-24 urte izango zituen orduan berak. Medikuntza eta biologia ikasketak egindako gazte bat zen, mendizalea eta eskizizalea. Adin horretan erreferentzia bat izan zen niretzat. Eta ez soilik mendian eta elurretan, bizitzaren beste alderdi askotan ere bai. Mendira joan eta eguraldi txarra egiten bazuen, segituan

sortzen zitzaion beste egitekoen bat. Leireko monastegian gregorianoak entzuterako edo Iparraldera pastoral batez gozatzera edo putreak ikustera... Aukera anitzak zituen buruan, bidaia, kultura, ohitura edota folkloreakin lotuak. Iniziatiba handikoa eta kezka sozial asko zituen pertsona zen. Horregatik, ez da harrizkoa Aranzadin, Andia kultur elkartearen, Gipuzkoako Mendi Federazioaren, Alpino-Uzturre mendien elkartearen edota berdintasunaren aldeko ekimenetan parte hartu izana. Tren asko martxan jartzen zituen lokomotorea zen, nahiz eta gero lokomotorea izateari uzten

zion, eta proiektuak bere kabuz hazten utzi... Bere berezitasuna radiologia izan zen, eta azken urteetan Aranzadin lurpetik ateratzen egon zen, baina presatuntza handia zuen beste arlo askotan. Oroimena ere sekulakoa zuen. Mutur bateko eta besteko pertsona eta gaiekin hitz egiten zekien. Kasketaldi eta purrustadak ere izaten zituen, eta guk «Antxonada» deitzen genien. Gero berehala pasatzen zitzaizkion kasketaldi horiek. Azken urteetan hitzaldietan eta elkarten ginen askotan. Azkenekoz pasa den astelehenean egon nintzen berarekin. Asuncion Klinikara joan behar nuenez, berarekin egiteko baliatu nuen, eta aste honetan afariren bat egitekotan geratu ginen. Nahiz eta berarekin asko ez egon, bere presentzia nabaritzen duzun pertsona horietako bat zen. Bere semearengatik erlazio gehiago nuen berarekin azkenaldian. Gazte ginean gurengatik egin zuena nolabait bere semearengatik itzultzen saiatu naiz, bidaia batera gonbidatuz. Bestalde, asko eskertzen dut 14 urte nituenean ni Pirinioetara eramanez izana edo bere etxeko atea zabaltzea. Etxean ez gurengatik ez liburuak ez disko-jogailurik, ez eta telebistarik ere, eta gogoan dut 16 urte nituela nola uzten zidan bere etxeko giltza, nahi nuenean hara joateko. Han aldizkariak eta liburuak irakurtzen nituen edota musika entzun. Hori ere oso garrantzitsua izan da nire bizitzan. Bera sartuta zegoen erakunde eta elkarteetako kideekin bilera bat egin asmo dut orain, guztiok bera bultzatzen ari zen proiektuak ezagutzeko, eta horiei jarraibidea emateko».

«Gauzak berak egiten zituen pasioarekin egingo bagenitu, gizarte hobea izango genuke»

Edurne Pasaban

Mendigoizalea

«Mendiarekin zuen loturagatik ezagutu nuen nik Antxon. Oso pertsona langilea zen. Proiektu guztietan bere indar eta pasio guztia jartzen zuen, eta mendian ere horrela zen. Ilusio handiarekin sartzen zuen proiektu guztietan, eta bizitzan eta maiztasun zitelako bultzatzen zituen guztiak. Antxonek erreferentzi bat izan behar du gizarte osoarentzat. Gauzak berak egiten zituen pasio horrekin egingo bagenitu, ziurrenik askoz hobeto gauzatuko genituzke. Egiten zuenaz eta bizitzaz erabat gozatzen zuen».

«Ezberdinen arteko elkarbizitzarako tresna oso garrantzitsua zela pentsatzen gurengatik»

Jokin Bildarratz

Tolosako alkate ohia

«Bere izaera politikoa bat dator bere fisikoarekin, nolabait esateko. Patsada handikoa, oso pertsona sendoa, eskuzabala beti... Legealdi honetan zerrendakidea zen. Eta, gainera, nik nire zinegotzi kargua utzi dudana honetan, bera zen zerrendan hurrengoa, beraz, berak hartuko luke nire kargua. Publikoki nire kargu uztearen berri udaletxean ematen ari nintzen unean gertatu zitzaion ezbeharra. Kasualitate hori eman zen. Baina, bera zerrendetan ez zegoen kasualitatez. Eusko Alderdi Jeltzaletik

pentsatzen gurengatik lau urte hauek oso garrantzitsuak zirela elkarbizitzarako, eta Antxon bezalako pertsonak oso baliagarriak izan zitezkeela uste gurengatik. Ezberdinen arteko elkarbizitza jorratu ahal izateko berebizikotzat gurengatik. Mundu guztiarekin zuen harreman on hori baliatuz gurekin lanean ari zena oso interesgarria iruditzen zitzaigun. Alderdiak izan denetik dut gertuko harremana berarekin. Askotan egoten ginen eztabaidatzen, barre egiten, gogo eta egiten... politikan bizitzan bezalakoak zelako. Izan ere, ikusi besterik ez dago Olenztzeroren paperean sartuta. Azken finean, Antxon bera benetako opari bat zen. Bere irudiak Juan Mari Agirre Txato-rena dakarkit burura, bai bere izateko eran, bai eta desagertzekoan ere. Bien ezaugarri nagusietakoa zen eskuzabal izatearena».



2004. urtean, Antxon Bandres, Mendi Federazioko lehendakari zelarrik, Txindokiko Igoeran, Iker Karrera denboran hartzen, Josu Iztuetaekin. A.E.



Olenztzeroren paperean. IDOIA ZABALETA

Pasioa zen Antxonena...

Iritzia

Juantxo Zeberio
Musikaria

Gaur Antxon agurtu dugu. Eguerdiko ordu-batean Tolosako kanposantuan izan da. Egun zoragarria, argia, bero. Abuztuko irailkoa bainoago zirudien eguna. Argitsua, parez pare berak hainbeste maite zituen mendiak. Ni kanposantura heldu naizenean Et Incarnatus orkestrako 10-12 bat kide Troika Inauterietako habanera ederra entsaiatzen eguzkipean. Hunkituta. Irundik, Donostiatik, Errenteriatik ostegun

goiza libre hartu eta hona etorri dira apenas ezagutzen ez zuten gizon baten lurperatzean beren musika eskaintzera. Urtean behin izaten zuten Antxon berrira Iraolako zuloan, Solstizio kontzertuan, gure buruari urtero egiten diogun omenalditxoan. «Izan direnen, direnen eta etorriko direnen» omenez, eguzkiaren eta bizitzaren gorazarre uda hasieran egiten dugun ekitaldi xumean. Mendez mende zutik dirauen pagadiaren altxoan—gure ondorengoek izango al dute gure zorte bera?—. Gizakion bizitzaren ikusle mutu diren pago hauen magalean. Metafora polita, baino

errealitateak batzuetan—gaur adibidez—ekaineko argitasun haren sakontasuna benetakoa dela gogora arazten digu. Ez gara betirako eta batzuk badoaz. Nahi baino lasterrago gainera. Gaur bezala.

Eta zenbat horrelako egingo zituena Antxonek bere bizitzan? Zenbat solstizio? «Benga Robinxon, noiz goaz? Zer egin behar da?». Todoterreno hartu, musika-tresnak sartu, aurreko astean segadorarekin garoa ebaki lokaztutako zorua egokitzeko, otordua prestatu. Kristian belarra jasotzen... Eurria ari duela, «goazen ireki berri duten Urkizuko elkar-

tera!». Ez zen ez geldirik egotea, ez.

Eta zenbat solstizio desberdin bere bizitzan. Seguraski Marijosek baino ez ditu jakingo.

Troika jendea hilobirantz zihonean eta Troika jendeak hilobia utzi duenean. Kantuaren lehen notak entzun eta denok ulertu dugu. Antxon da. Nork bestela antolatuko zuen horrelako kontzertua berriro ere antzokietatik kanpora?

Zenbat pentsamendu eta malako gaur goizean; zenbat jende, ze desberdin, baina denak pasioaren bat edo bestek bultzatuak. Mendi, musika, elkarreak, Inaute-

riak, Gabonak... Pasioa zen Antxonena. Pasioz bizi denak, pasio horren pareko harremanak eta gozamenak sortzen ditu, baina hau falta denean tamaina berekoa da hutsunea. Gure hutsunea.

Gaurkoa. Eta bitartean Troika eguzkipean, irailko eguzkipean, eta Antxon ikusi dugu mendi maldaren batean, edo... Tolosako Berdura plazan zen? Habanera goxo bat dantzatzen.

Tolosako hilerrian Antxon Bandresi azken agurra egin zioten uanean, Juantxo Zeberio musikari tolosarrak egindako hausnarketa.



Lehen udal hauteskundeetako irudia. Atzean, ezker-eskuin: Iñaki Linazasoro, Mirentxu Etxeberria, Martin Agirrezabala, Pepi Gorostidi, **Antxon Bandres**, Juan Asensio, Jose Martin Amantegi, Santos Mokoroa, Bitxori Salinas eta Antxon Olalde. Beheran, ezkerretik hasita: Migel Zabala, Josexto Sasietia, Jesus Mari Agirre, Juan Zubiria, Jesus Gomez eta Jose Agirrezabala. HITZA

Beti laguntzeko prest

Iritzia

Pako Etxeberria

Aranzadi Zientzia Elkarteak kidea

Antxon Bandres, adituen artean erreferentzia zen Aranzadi Zientzia Elkartearen. Honek arrazoi ezberdinei erantzuten die, eta horien artean daude, akademikoki formazio handia zuela, bai medikuntzan eta baita biologian ere. Honegatik eta Euskal Herriko historia eta geografian zuen ezagutza handiagatik, Aranzadiko ikerkuntzako proiektu askotan parte hartzen iritsi zen.

Bestalde, ingurugiroari berebiziko garrantzia ematen zion, guzuziontzako erreferentzia izatera iritsi zelarik. Gure herrialdean azken urte luzeetan gertatu diren gertaera polemikoen ingu-

ruan berari kontsultazera eramane gaitu.

Berak hala nahi izan zuelako, bere kabuz, Oroimen Historikoa- ren ikerkuntzari ekin zion. Gorpua hobituk ateratzen parte hartzen ari zen Aranzadiko kideekin, eta ondoren laborategian identifikazio azterketak egiten zuten.

Etorkizuneko proiektu askok gogoan hartu beharko dute, bere inizatiba izan baitira

Bere heriotza baino egun batzuk lehenago, esaterako, Asteasun hobietatik atera ditugun gorpuen laguntzen aritu zen. Eta era berean, aste horretan bertan, txikikeria bat balitz bezala, *La*

maleta mejicana filmaren estreinaldira joan ginen, Robert Caparen Gerra Zibilaren inguruko argazkiak Mexikon agertu zirela eta.

Film honetan, duela urtebete Rubielos de Moran (Teruel), Antxon gorpua hilobietatik ateratzen agertzen da. Bertan, soldadu errepublikarrak erreperatu genituen.

Beti laguntzeko prest, eta gerturaten zitzaien edozein pertsonarekin kolaboratzeko pronto agertu izan da. Aranzadi Zientzia Elkartearen inoiz ezagutu dugun pertsonarik eskuaz balena zela pentsatzeraino iritsi gara.

Bere galera ordezkazina da, eta etorkizuneko proiektu askok gogoan hartu beharko dute, neurri handi batean bere inizatiba propioaren fruitu baitira.





GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Galtzaundi Irakurle Taldeak Joseba Sarrionandiarren *Kolosala izango da* liburua aztertuko du gaur, 19:30ean Kultur Etxean.
- **Tolosa.** Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du gaur, 20:00etan udaletxeko pleno aretoan. Herriar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera.
- **Ikaztegieta.** Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du gaur, 21:00etan Liburutegian. Herriar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera.
- **Anoeta.** Ezker abertzaleak herri batzarra egingo du gaur, 19:00etan udaletxean. Herriar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera.
- **Ugarte.** Ostiralean, hilak 7, Errosarioko Amaren jaien barruan egingo duten herri afarirako txartelak eskuratu daitezke jada Goikoetxearenean. Afaldu aurretik Muñoa eta Gorostidi bertsolarien saioa izango da giroa berotzen hasteko.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**

«Tolosaren izena Bruselan zabaltzeko asmoa dugu»

Tolosako Orfeoiko kideak etzi irtengo dira Bruselaruntz; emanaldia Wolubiliz kultur zentroan izango da

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosa inoiz baino presentegoko egongo da Bruselan, astelehenean. Hori dio behintzat, Tolosako Orfeoiko komunikazio arduradunak, Maite Chocanok. «Tolosako izena zabaltzeko asmoa dugu», dio.

Astelehenean eskainiko dute kontzertua Wolubiliz kultur zentroan 19:00etan, eta emanaldia Tolosako 750 urteurrenaren harira 2006ean Enrike Ugartek konposatutako eta Karlos Linazasoren hitzak dituen ereserkia abestuz bukatuko dute. «Oso garantzitsua da guretzat. Ereserkia abesterakoan Tolosako irudiak ikusi ahal izango dira kultur zentroan», azaldu du Chocanok.

Ordu eta laurdeneko emanaldia eskainiko dute, eta bi zatitan banatu dute emanaldia. Musika

sinfonikoarekin hasiko dira, Rosiniren *Petite Messe Solemnelle*ren zati batzuk abestuz, eta ondoren, euskal kanta herrikoiak entzun ahal izango dira Bruselan. Aipatu moduan, bukatzeko Tolosako Ereserkia kantatuko dute. Zuzenari lanetan Ignacio Ruiz de Alegria ariko da, eta bakarlari moduan ondorengoak: Amaya Arberas sopranoa, Juan Noval te-

norra, Beatriz de Galvez kontralttoa, eta Pablo Garcia baxua. Era berean, instrumentalista bezala Javier Perez Azpeitia piano-jotzailea eta Ana Belen Garcia harmoniuma izango dira emanaldian hiru tolosarrekin batera: Iñigo Agirre gitarra-jotzailea, Juanjo Falcon baxu elektrikoa eta Mitzel Longaron bateria-jotzailea.



Orfeoikak Eguberrietan, Tolosako Leidorren eskainitako kontzertua. NEKA

Tolosako ereserkia

Tolosa eta bere auzo,
mendi eta inguru parerik gabeak;
euren altzoan dira,
San Joanen zaintzapean,
zazpi mende luze oratu;
oi, zenbat gudu!
oi, zenbat gudu!
harresi sendo-gotor
hauen zainetan;
oi, zenbat musu!
oi, zenbat kezka!
Oria emaroaren ur-ertzetan.
Zure handitasunak
eman zizun izena
eta ohorea, bai, Tolosa!
oi, zein bizia! oi, zein alai!
oi, zein ausarta!
Bedaio eta Aldaba, izaskun
eta Auzo Txikia,
Bedaio eta Aldaba, izaskun
eta Auzo Txikia,
San Blas eta Urkizu,
Monteskue eta Usabal,
San Esteban eta Santa Luzia,
Olarrain eta Amartz,
eta Aldaba Txiki:
hamairu alaba gure erreginak.
Armarrian gaztelu,
ikurrinean urdin sakona,
artisten sehaska,
euri-abaraska,
egitandi itzelen lekuko isil,
inaute-babesle,
euskara-maitale,
kanpotar guztien hartzaile.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



hitzak **TXOKOR**



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pareta** du

Urriak 9 · Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Obradoiro CAB
saskibaloit partida

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A · 20400 TOLOSA · Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 · tolosa@tolosa.redpeugeot.com

